



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek Bizkaiko baseleizen jaubetzea argitzeko eta "larregikeriak" zuzentzeko eskatu dabe

Bilbon, 2013ko abenduaren 19an

Kalkuluen arabera Lurraldean egon daitekezan 500 baseleiza inguruetakoz batzuetan gerta daitekean "larregikeria" egoeraren aurrean, Batzar Nagusiek, EAJ-PNV, PSE eta PP taldeen aldeko botoagaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz, arauz besteko proposamena onartu dabe Kultura eta Euskerako Batzordean. Proposamen horretan eskaerea egiten joko Aldundiari, Lurraldeko udalakaz alkarlanean aritu daiten, udal horreek eskatzen dabenean, baseleizen erregistro egoerari eta kontserbazino egoerari buruzko ikerketea bultzatzeko. Datu horreetan oinarrituz, Bizkaiko Batzarrek eskaerea egin dabe, Aldundiak "eskubide okerreko" egoerak zuzendu daizan, udalek jaubetzea eskatu ahal daien, halan jagokenean.

PP taldearen proposamenak batzarretako taldeen laguntzea jaso dau, taldeak bat etorri diralako, batzuek lurak eta erlijino tenplu txikiak euren izenean erregistretan oinarritutako "pikareska" horregaz bukatu beharra adierazoteko orduan, baseleiza horreen jaubeak, udalerririk izan daitekezalako. Azpimarratu dauenez, ekimena udalerriena izan behar da, baina udalerririk "txikienen" kasuan, arazo horri aurre egin ahal izateko arazoak dituen eta baliabiderik ez daukienez, Aldundiak aholkularitza emotea aurreikusten da. EAJ-PNV taldeak adierazo dauenez, informazio hori Foru Artxibategian dago.

ARIZTONDOREN AGERRALDIA

Saio berean, Josune Ariztondo Kultura diputatua agertu da, EH Bilduk eta Bizkaiko Popularrak (PP) egindako eskaerari erantzunez, New Yorken 2013ko urriaren 12an, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak Solomon R. Guggenheim Foundationeko ordezkariak egindako batzarraren barri emoteko. Hitzordu haretan Iñigo Urkullu Lehendakariak, Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldu Nagusiak eta Kulturako foru arduradunak hartu eben parte. Richard Armstrong Ipar Amerikako fundazioaren presidentegaz alkartu ziran, hiru erakundeek 1994an Guggenheim Bilbao Museoaren ganean sinatu eben eta datorren urtearen amaieran bukatuko dan hitzarmena barriztetako aukerea aztertuko.

Landutako gaien artean, Ariztondok adierazo dau topaketa baliagarria izan zala euskal administrazioen "jarrera eta borondate bateratua" finkatzeko, bere eretziz, sozialisten esku egon zan aurreko Eusko Jaurlaritzak gai horren aurrean erakutsi eban "hoztasunaren" ostean. Ganera, azpimarratu dau bileran 16 urteko funtzionamenduaren balantze "positiboa" egin zala, eta "dagoaneko egiten ari garana" idatziz finkatzeko balioko dauen etorkizuneko akordioa lortzeko "oinarriak" ezarri zirala.

Batzarretako taldeak bat etorri dira Euskadiko eta Estatu Batuetako erakundeen arteko alkarlana "arrakastatsua" izan dala adierazotean, eta alde biezat onuragarria izango dan akordioa lortzea



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

beharrezkoa dala esatean. Halanda be, PP-ko ordezkariak adierazo dau asmo hori ez datorrela bat Jose Luis Bilbao Ahaldun Nagusiak, irratiko alkarrizketa batean, barriztapena “edozein preziotan” egin behar zala adierazo ebanagaz. Popularren eretxiz, holango adierazpenek, “negoziazioan daukagun pisua ahultzen dabe”. “Kezkagarria da jarrera gogorra ez hartzea, frankizia bat izateari ixteko”, esan dau Irune Soto EH Bilduko bozeroaleak.

Ariztondok garrantzia kendu deutse adierazpen horreei, bere berbetan testuinguru jakin batean egin ziralako. Ariztondoren ustetan, Aldundiko arduradun nagusiak esan gura izan ebana, Bizkaia “ezin ebalu Guggenheimaren trena galdu” izan zan, museoak asko dinamizatu daudelako lurraldeko kultura, eta inguruneko ekonomia eta urigintza bultzatu ditualako eta autoestimua berreskuratzen lagundu deuskulako. Bileran horretan horren barri jaso eben Solomon R. Guggenheim Fundazino arduradunek. Garrantzitsuena, euskal erakundeek bileran erakutsi eben “ekintza batasuna” eta akordioagaz “alde biek” irabaztea da. “Argi eta garbi daukat Aldundiak Bizkaiaren interesetarako hoberena bilatuko dauela”, adierazo dau María Presa batzarkide jeltzaleak.

LAGUNTZEA PUNTA BEGOÑA BERRESKURATZEKO PROIEKTUARI

Kulturako arduradunak, Aldundiak Punta Begoñako galeriak berreskuratzeko proiektuaren aurrean bere gain hartuko dauen finantza eta teknika arloetako konpromisoa jakinarazo deutse batzarretako taldeei. “Neurri handiko” proiektua da. Proiektuaren burua Getxoko Udala izango da, eta Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHU-ko 67 adituren alkarlana be izango dau. 12 urteko epealdian, hiru urteko zatietan banatuta, egingo dan proiektu estrategikoa izango da. Aurreikuspenak kontuan izanda, lehenengo zatia 2014ko udabarrian jarriko da martxan.

Saio berean, Ariztondok EH Bilduri erantzun deutso, Aldundiak, Barakaldon dagoan Arrontegi mendiko “aztarnategi arkeologikoari” buruz aditu baten eskaereari erantzuteko asmoa daukan ala ez argitzeko. “Balio handiko trintxerak” aurkitu dira inguru horretan. Dirudienez, babesleku moduan erabili ziran III. Karlistadaren garaian (1869-1876). Aldundiak esku artean dituan datuek erakusten dabenez, ondorio hori aterateko aukeratu dan metodologia ez da “egokiena” izan. Diputatuak Antxoka Martínezek egin dauen lan partikularra autortu dau, baina azaldu dauenez, beharrezkoa da aurkitutako egiturak argituko dituen beste prospekzio teknika batzuk apliketea. Aurkikuntzea egin dan lekuan Barakaldoko Udalak parke bat eregiteko eta urigintza proiektu bat garatzeko asmoa dauka. Aldundiak konpromisoa hartu dau lurraren jaubeei idazki bat bialtzeko, azterlan tekniko bat martxan jarri ahal izateko.

Beste alde batetik, Ariztondoren ustez, Kosta Zuzendaritzak Plentziako Eskabetxeria zaharraren eraikina lurreratze orduan izan dauen jokaerea “iseka” eta “torpetasuna” izan da. Arrain kontserba lantegi zaharra, herri horrek euki dauen arrantza iraganaren azken aztarnetakoa, lurreratu egin eben, hurrengo egunean –joan dan urriaren 10ean– Aldundiko Ondareko teknikariek instalazioak ikuskatzera joan behar ziralako jakinda, ezelango babes ofizialik ez eukan higiezinaren balorazioa egiteko. “Gure teknikariei iseka egin jaken”, azaldu dau.

BAZTERTUTAKO PROPOSAMENAK



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Beste alde batetik, batzordeak baztertu egin dau PP-k aurkeztutako arauz besteko proposamena. Proposamen horretan eskaerea egiten zan, Duques de Soria Fundazioak, Carmen Gimenezek, Juan Luis Laskurainek, Joseba Arregik eta “beste” pertsona batzuek Bilboko Guggenheim museoa martxan jarteko orduan bete eben “ezinbesteko” lekua autortzeko. Ganerako taldeek zehaztasun faltea kritikau dabe, eta adierazo dabe “asko” izan dirala Bilboko arte garaikide zentroa martxan jartean parte hartu daben pertsonak. Hori dala eta, “bidebakoa” eta “arriskutsua” izango litzateke pertsona “asko” kanpoan itxi daikezan ekimena bultzatzea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

El Parlamento de Bizkaia acuerda que se aclare la propiedad de las ermitas de Bizkaia y se corrijan los "abusos"

Bilbao, a 19 de diciembre de 2013

Ante la situación de “abuso” que pueda estar dándose en algunas de las 500 ermitas que se calcula pueden existir en el Territorio, las Juntas Generales han aprobado en la Comisión de Cultura y Euskera, con el apoyo de PNV, PSE y PP y la abstención de EH Bildu, una proposición no de norma que insta a la Diputación a colaborar con los ayuntamientos del Territorio, "cuando éstos lo soliciten", para impulsar una investigación sobre la situación registral de las ermitas y su estado de conservación. En base a dichos datos, la cámara vizcaína pide que se corrijan aquellas situaciones “de atribución errónea” con la intención de que los ayuntamientos puedan reclamar la propiedad cuando proceda.

La propuesta del PP ha recabado el apoyo de los grupos junteros que han coincidido en acabar con esta “picaresca” que está provocando que terceros registren a su nombre terrenos y pequeños templos religiosos que pudieran ser de los municipios donde se enclavan. Los grupos de la cámara vizcaína han insistido en que la iniciativa debe recaer en los propios municipios, aunque para “los más pequeños”, debido a su dificultad para abordar dicha problemática en solitario por no disponer de recursos, se plantea la posibilidad de que puedan obtener el asesoramiento de la propia Diputación. El PNV ha asegurado que la información se encuentra disponible en el Archivo Foral.

COMPARECENCIA DE ARIZTONDO

En la misma sesión la diputada foral de Cultura, Josune Ariztondo, ha comparecido a petición de EH Bildu y PP para explicar el contenido de la reunión mantenida el 12 de octubre en Nueva York con los responsables de la Solomon R. Guggenheim Foundation. A aquella cita asistieron el lehendakari, Iñigo Urkullu, el diputado general de Bizkaia, José Luis Bilbao y la propia Ariztondo, junto con responsables de la fundación norteamericana para abordar la renovación del convenio de 1994, que firmaron las tres instituciones respecto al Museo Guggenheim Bilbao y que expira a finales del próximo año.

Entre los temas tratados, Ariztondo ha señalado que el encuentro sirvió para fijar la “posición y voluntad conjunta” de las administraciones vascas después de la “desafección” que, a su juicio, creó el anterior Gobierno Vasco en manos de los socialistas. Además, ha señalado que en la reunión se hizo un balance “positivo” de los 16 años de funcionamiento, y se establecieron “las bases” para conseguir un acuerdo de futuro que debe servir "para fijar por escrito lo que ya estamos haciendo”, ha manifestado.

Los grupos junteros han coincidido en señalar que la alianza entre las instituciones vascas y americanas ha resultado ser un “éxito” y que es necesario buscar un acuerdo que sea beneficioso



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

para ambas partes. Sin embargo, el representante del PP ha sacado a relucir que este propósito no vaya en la línea por lo manifestado recientemente por el diputado general, José Luis Bilbao, cuando dijo en una entrevista radiofónica que la renovación debía de hacerse “a cualquier precio”. Los populares creen que este tipo de declaraciones “debilitan nuestra posición negociadora”. “Es preocupante que no se adopte una posición exigente para dejar de ser una franquicia”, ha coincidido la portavoz de EH Bildu, Irune Soto.

Ariztondo ha restado trascendencia a esas declaraciones ya que, según ella, se hicieron en un contexto determinado. Más bien, lo que vino a decir el máximo responsable de la Diputación –según ella- es que Bizkaia “no podía perder el tren” del Guggenheim debido al dinamismo cultural que ha supuesto el museo para el territorio y al impulso que ha ofrecido para la revitalización económica del entorno, la regeneración urbanística y la recuperación de la autoestima, algo que trasladaron en esa reunión a los responsables de la Fundación Solomon R. Guggenheim. Lo importante es la “unidad de acción” que las instituciones vascas han liberado en la reunión y que “las dos partes ganen” con el acuerdo. “No me cabe duda de que la Diputación buscará lo mejor para los intereses de Bizkaia”, ha asegurado la juntera jeltzale María Presa.

APOYO AL PROYECTO DE RECUPERACIÓN DE PUNTA BEGOÑA

La responsable foral de Cultura ha informado también a los grupos junteros del "compromiso financiero y técnico" que la Diputación va a asumir con el proyecto de recuperación de las galerías de Punta Begoña, un proyecto de “gran envergadura” que va a liderar el ayuntamiento de Getxo y que va contar también con la colaboración del Gobierno Vasco y de un grupo de 67 expertos de la UPV/EHU. Se trata de un proyecto estratégico que se llevará a cabo durante un período de 12 años, divididos en trienios, el primero de los cuales se prevé arrancará en la primavera de 2014.

En la misma sesión, Ariztondo ha respondido a EH Bildu en relación a si la Diputación espera atender la petición de un experto para estudiar el “yacimiento arqueológico” del monte Rontegi de Barakaldo, en donde se habría descubierto unas “trincheras de gran valor” que al parecer sirvieron de defensa militar en el contexto de la III Carlistada (1869-1876). Según los datos que maneja la Diputación, la metodología elegida para llegar a esta conclusión no ha sido “la más apropiada”. La diputada ha reconocido el trabajo realizado a modo individual por Antxoka Martínez, pero ha explicado que es necesario aplicar otra serie de técnicas de prospección que aclaren las estructuras descubiertas, en cuyos terrenos el ayuntamiento de Barakaldo prevé construir un parque y desarrollar un proyecto urbanístico. La Diputación se ha comprometido a mandar primero un escrito a los propietarios para iniciar un estudio técnico sobre el terreno.

Por otro lado, Ariztondo ha tildado de “burla” y “torpeza” el proceder de la Dirección de Costas en el derribo de la Escabechería de Plentzia. La vieja fábrica de conservas de pescado, uno de los últimos vestigios del pasado marinerío de esta localidad, fue demolida a sabiendas de que un día después –el 10 de octubre- los técnicos de Patrimonio de la Diputación iban a realizar una inspección a las instalaciones para hacer una valoración del inmueble que no contaba con ningún tipo de protección oficial. “Nuestros técnicos fueron burlados”, se ha quejado.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PROPOSICIONES RECHAZADAS

Por otro lado, la comisión ha rechazado una proposición no de norma del PP que solicitaba que se reconociera el papel “clave” de la Fundación Duques de Soria, Carmen Giménez, Juan Luis Laskurain, Joseba Arregi y “otras” personas, en el origen y arranque del Museo Guggenheim de Bilbao. El resto de grupos ha criticado la falta de concreción y el hecho de que hayan sido “muchas” las personas que han intervenido en la génesis y puesta en marcha del centro de arte contemporáneo bilbaíno por lo que sería “injusto” y “peligroso” apoyar una iniciativa que puede dejar a otras personas fuera.